

UZTAILA

ZERURA BEGIRA

Uztaila da egunaren luzera mozten hasten deneko hila. Eguzkia: uztailaren leian irten 6,46etan sartu 21,48etan; abuztuaren leian irten 7,12etan, sartu 21,30etan. Beraz, eguna 44 minutuz murrizten da.

Uztailak	3,	6,59etan, ilargi berria (ilgora hasi)
"	11,	2,19etan, ilgora
"	18,	19,42etan, ilargi betea (ilbehera hasi)
"	22,	22,46etan, Eguzkia Leo arora sartzen da
"	25,	15,31etan, ilbehera

* ordu ofizialak.



Mihilua

EREIN		LANDATU	UZTA		
BARATZA	Ilgora				
	<ul style="list-style-type: none"> * Ilarra * Baba beltza * Baberruna (motza) * Orburua * Leka 				<ul style="list-style-type: none"> * Ilbehera * Ur-berroa * Zerba * Eskarola * Espinaka * Letxua * Arbi-aza * Azenarioa * Txikoria * Errefaua * Azalorea
BELARRAK	<ul style="list-style-type: none"> * Belar bedeinkatua * Azafraia * Mihilua * Perrexila 		<ul style="list-style-type: none"> * Apioa * Brusselaza * Azalorea (udazkenekoa) * Aza (Milanokoa) * Letxua * Txikoria * Eskarola * Arbi-apioa * Porrua * Aza gorria * Aza * Zerba 	<ul style="list-style-type: none"> * Apioa * Batata * Alberjina * Ur-berroa * Kalabazina * Eskarola * Espinaka * Garbantzua * Leka * Letxua * Luzokerra * Ozpin-luzokerra 	<ul style="list-style-type: none"> * Piperra (denak) * Porrua * Errefaua * Tomatea * Azenarioa * Baratzuria * Tipula * Erremolatxa gorria * Patata * Meloia * Arbia * Angurria
			<ul style="list-style-type: none"> * Mihilua * Perrexila * Oreganoa * Apoperrexila 	<ul style="list-style-type: none"> * Erromeroa * Azitraia * Tipulatxa 	

Erein: hazia; **Landatu:** landarea, aldaska, erreboila, begia, zainak, etab.

BITXIKERIA

Barazki bereziak

Gardua:

Cynara cardunaculus. Uzta: hostoa.

Orburuaren familia eta jenero berdineko landarea da eta haren antzera hotz handiak ez ditu atsegin. Etekin onak lortzeko oso lur onak, arinak, eta ongi ongarrituak behar ditu, nahiz eta lur txarxeagoetara ere erraz egokitu ohi den.

Erein: apiril-maiatzean. Mahaian edo soroan bertan zuloko 4-5 hazi ereinez eta zulo batetik bestera 1 m-ko tar-tearekin, zulo bakoitzeko landararik onena aukeratu beharko da.

FRUITARBOLAK

Uztak:

Beranduko gerezi eta gingak, aranak, sagar goiztiarrak, almendrak, udare goiztiarrak eta melokotoiak.

Gaztainondoaren loraldia.

ESAERAK

(Julian Alustizaren "Euskal Baserriaren inguruan" liburutik jasoak)

- * Madalena bero, hagatara gero
(Arantzazu)
- * Santa Madalena egune horeatue bada,
gaztaina-hagarik egin beharrik ez;
oskarbi bada, berriz, gaztaina hagatara (Gabiria)
- * Uztan lekaziari,
eta eragin segari,
Madalenak mantalean
intxaurrak ugari.
- * Uztaileko burrun-burrun,
ez beti goxo, baina hun! (Luzaide)
- * Uztailea erautsu,
laboraria urgulutsu



Brokolia, erdian ezker aldean

Lanak: jorraldiak, belarrik izan ez dadin eta ureztaketak udan. Uzta-garaia baino hogeit bat egun lehenago landare osoa bildu, goikaldean lotu eta zaku edo oihal batez inguratu, hostoak ilunpean zuri daitezten. Hotz handiak badira, lurrez ere inguratu. Marraskilo, bare, sator, mildiu eta pikardatuaren erasoetatik babestu beharko dugu.

Uzta: urri-otsaila bitartean.

Azak:

Brusselaza:

Brassica oleracea bullata gemnifera. Uzta: hostoa.

Egiazko hosto bilakatu baino lehen, enborrean hazten diren begiak edo kimuak biltzen dira. Kimu hauek trinko mantentzen daitezten, ongarririketa organiko eta nitrogenatu gehiegizkoak kaltegarriak dira.

Erein: martxo-apirilean. Hazia oso txikia denez, hondarreakin nahasita ereintzaren uniformetasuna asko hobetuko da. Ureztaketak oso arin egin.

Landatu: ekain-uztailean, 0,6 x 0,6 m-ko tartearrekin.

Lanak: jorraldiak. Aza-tximeletaren erasoari kontu egin.

Uzta: urri, azaro eta abenduan. Enborrean behetik gora heldu ahala bildu.

Aza gorria eta Buru-azak:

Brassica oleracea eta *Brassica oleracea capitata*.

Bi motako buru-azak daude: hosto leunak eta hosto kizkurak dituztenak. Azken hauek Milanoko azak dira.

Erein: beti hazitegian. Lau garaitan, uzta noizko nahi dugunaren arabera. (1 g = 250 hazi).

Udaberrirako: irailean erein, babesean

Udarako: otsail-martxoan erein, babes eta beroaz lagundurik.

Udazkenerako: apirilean erein, babesik behar ez delarik.

Negurako: maiatz-ekainean erein.

Ureztaketa ugari. Belar txarren garbiketari eta abarri kontu egin.

Landatu: landareak erne eta 40-50 egunera. 0,5 edo 0,6 m-ko tartearrekin.

Lanak: udan ureztaketak eta jorraldiak. Aza-tximeletaren erasoari kontu egin.

Uzta: urte osoan. Aza gorria hotz handienak baino lehen biltzea komeni da.

Brokolia:

Azalorearen tankerakoak dira, infloreszentzia berdea dutelarik. Inoiz ez du lehorterik jasan behar.

Erein: maiatz-ekainean.

Landatu: 5-6 aste geroago, landareak 5 hosto dituenetan; 0,6 x 0,6 m-ko tartearrekin.

Lanak: aza gorriaren berdinak.

Uzta: hurrengo udaberrian.

Txinar aza:

Letxuaren edo eskarolaren antzekoa da eta hauen lan berdinak behar ditu. Jelaterik ez du jasaten.

Erein: ekain-uztailean.

Uzta: irailetik aurrera.

Arbi-aza:

Brassica napus napobrassica.

Suediako arbi bezala ere izendatzen da.

Buru-azak bezala landu.

Erein: maiatz-ekainean.

Uzta: udazkenean.